

1. Ekonomia soziala eta zientzia ekonomikoa: paradigma berri baten beharrezana

Iñaki Esparta Soloeta (EHU)

1.1. SARRERA

Ekonomia soziala mugimendu kooperatiboa sortzearekin hasi eta urte luzez garatuz eta gorpuztuz joan den esperientzia esanguratsua da. Garrantzizko indar ekonomikoa da munduko hainbat herrialdetan, baina batez ere, indar etiko eta eraldatzaile handia duen errealitatea da; ekonomia sozialaren balioak, printzipioak, praktikak eta emaitzak garrantzitsutzat eta oso baliagarritzat jo izan dituzte gizartearen hainbat esparruk.

Ekonomia sozialaren mugimenduak gizabanakoen artean komunitate berri bat sortu nahi du, bertan pertsonen arteko elkartasunaz gain, belaunaldien arteko elkartasunak ere lekua izan behar duelarik. Enpresa eta tresna ekonomiko demokratikoen bidez burutu beharreko eginkizuna da hori ekonomia sozialarentzat, enplegua, ingurua, eta eskubidea sozial eta politikoak errespetatuz (Jeantet 2000).

Hala ere, zientzia ekonomiko *ofizialarentzat*, ekonomia sozialak osatzen duen errealitatea aintzakotzat hartzea merezi ez duen bitxikeria baino ez da. Eta ezin daiteke beste modu batera izan, zientzia ekonomikoaren paradigma¹ ofizial edo ortodoxoak (hots, paradigma neoklasiko-neoliberalak) bere azterketak egiteko erabiltzen dituen balio eta hipotesiak kontuan izanik, adibidez: pertsonen jarduera egoismo hutsak gidatzen du, gizartearen antolakuntza merkatuak gidatu behar du, politikak jarduera ekonomikotik at egon behar du, desberdintasunak ezinbestekoak dira, etab. Alde horietan oinarritzen den paradigma batek ezin ditu bere baitan bildu ekonomia sozialaren muina diren eta bere jarduna gidatzen duten ezaugarri funtsezkoenak: demokrazia, partaidetza eta elkartasuna.

1. Paradigma zientifikoa diziplina batera dedikatzen diren ikertzaileek konpartitzen dituzten metodo, teknika eta balioen multzoa da. Paradigma baten barruan lan egiten duten ikertzaileak bat etorriko dira, bai aztertu beharreko gaiez, bai gai horiek aztertzeko eran. Esan daiteke, beraz, erabiltzen duen paradigman arabera “ikusiko” duela zientzialariak jorratzen duen gaia. Beraz, bi paradigma aurkakoren defendatzaileak mundu (zientifiko) ezberdinetan biziko dira. Horregatik, “konbertsio erlijiosoarekin” alderatu du Kuhn-ek paradigma aldaketa.

Paradigma neoklasikoak jasandako kritikak ez dira oraingoak soilik, baina azken hamarkadetan ugalduta egin dira, eta, horrekin batera, paradigma berri baten beharrezanaz inoiz baino ozenago hitz egiten da. Paradigma berri horrek bi ardatz nagusi, behintzat, izan beharko lituzke: alde batetik, pertsonen portaera ekonomiko-sozialaren kontzeptzio berri bat eskaini beharko luke, eta, bestetik, ordena ekonomiko bidezkoago baterako proposamenak eskaini beharko lituzke.

Paradigma instituzionalistak ezaugarri guztiz baliagarriak aurkezten ditu aipatutako ardatz bi horien inguruan erantzunak eskaintzeko. Pentsamendu ekonomiko instituzionalistak tradizio historiko luzea du; demokrazian, justizian eta elkartasunean oinarritutako antolakuntza ekonomiko-soziala sustatzea da bere ahalegin intelektualean eta bere praktiken norabidea.

Ekonomia sozialak aintzakotzat hartuko duen paradigma bat behar du, baina, batez ere, ekonomia soziala bitxikeriatzat joko ez duen paradigma baten beharrezan du zientzia ekonomikoak. Lan honen helburua ekonomia sozialaren eta instituzionalismoaren arteko loturak aztertzea da, eta biak uztartzeko ahaleginean zenbait ekarpen egitea.

1.2. EKONOMIA SOZIALA

Ekonomia soziala merkatuan jarduten duten enpresa pribatuak osatzen dute; ondasunak eta zerbitzuak ekoiztea, aseguratzea edo finantzatzea da horien helburua. *Ekonomia soziala* kontzeptuak herrialde bakoitzean ñabardura berezia hartzen duen arren, autore guztiak bat datoz ekonomia sozialeko enpresen ezaugarri garrantzikoak azpimarratzean: autonomia-gestioa, erabakiak hartzeko prozesu demokratikoa eta posibleak banatzerakoan pertsonen eta lanaren lehentasuna kapitalaren aurretik. Bazkide kapitalistak edo inbertitzaileak, egotekotan ere, ez dira kategoria nagusia, ez eta kategoria onuraduna ere. Beraz, enpresa horietan, bazkide bakoitzak botoa izateaz gain, posiblearen banaketa eta erabakiak hartzeko boterea ez daude zuzenean lotuta bazkide bakoitzak jarritako kapitalarekin (Monzón 1997, 116).

Ekonomia soziala kontzeptua iraultza industrialaren ondorio latzak leuntzeko asmoz langileek sortutako kooperatibekin loturik agertzen da. Beraz, kooperatibak izan dira, eta dira, ekonomia sozialaren ardatza. 1844an Ingalaterran sortutako Rochedale-ko Kooperatibak bultzatutako printzipio ospetsuak mundu guztiko kooperatibetara zabalduta ziren, eta erabakigarriak izan dira *ekonomia soziala* kontzeptua garatzeko.

1.2.1. Ekonomia soziala eta hazkunde-ereduaren krisia

Ekonomia soziala edo *hirugarren sektorea* (sektore pribatu kapitalistatik eta sektore publikotik kanpo dagoen errealitatea izendatzeko) deitzen den horrek sus-trai historiko sakonak dituen arren, batez ere orain dela hamarkada bitik honantz irabazi du ikertzaile ekonomiko eta sozialen arreta. Sektore horrek biltzen dituen enpresa eta erakundeei eskainitako ikerkuntzak ugalduz joan dira, ekonomiako bi sektore nagusiek (enpresa kapitalistek eta sektore publikoak) euren ezintasuna erakutsi dutenean gaurko gizarteek planteatutako bi erronka nagusiri erantzun egokia emateko: enplegu beteari eta gizartearen ongizate sozialari.

Bigarren mundu gerraren ostean herrialde garatu gehienetan ezarri zen ekonomia mistoko eredu tradizionala, eta eredu hori 1945-1973 urteen artean gai izan zen orduko gizarteek planteatutako interes orokorreko arazo inportanteenei irtenbidea eskaintzeko. Hazkunde ekonomikoak inoiz izan dituen tasarik altuenak izan zituen, eta enplegu beteko ekonomiak lortu ziren. Egoera horretan, sektore publikoa egokitzen jotzen zen zerbitzu publikoak eta ongizate sozialeko zerbitzuak eskaintzeko, eta izugarritzko garapena izan zuen herrialde guztietan. Testuinguru horretan, ekonomia sozialeko enpresen egitekoak garrantzia galdu zuen, enpresa pribatu kapitalistak eta Estatu nahikoa baitziren enplegua segurtatzeko eta ongizate-maila egokia bermatzeko.

Ekonomia mistoko ereduaren krisia 1945-1973 aldiko hazkunde eredu ahitzearekin batera etorri zen. Hazkunde eredu horren zutabeak unitate produktibo handiak, eta kapitalaren eta energiaren erabilera intentsiboa izan ziren, alde batetik, eta, bestetik, sektore pribatu tradizionalaren osagarri moduan jarduten zuen sektore publiko handia. Sektore publiko hori arlo berriak hartuz eta haziz zihoan neurrian, gastu publikoa ere gehituz joan zen, eta defizit publiko handiak sortu ziren, mendebaldeko ekonomia guztietan. Defizit publiko handien arazoaz gain, inflazio tasek ere gorakada handia izan zuten, eta modu larrian areagotu zen langabezia; horren aurrean, eskariaren aldetik, politika makroekonomiko keynesiarrek ez zuten gaita-sunik agertu egoera hori kontrolpean jartzeko.

Gaur egun, ekonomia sozialeko enpresa-ereduei buruzko jakin-mina berpiztu egin da, ekonomia mistoko eredu tradizionalak ezin baitio hainbat arazo garrantzitsuri konponbide egokia eskaini: langabezia, bazterketa soziala, osasuna, hezkuntza, nekazaritza-inguruetakoko ongizatea, populazio jubilatua bizi-kalitatea, etab. Beharrian horietariko askok ez du aurkitzen eskaintza nahikorik edo egokirik, ez izaera pribatuko agente kapitalistetan, ez sektore publikoan. Interes orokorreko helburuak lortzea (enplegu bete edo babes sozial egokia) gero eta zailagoa da ekimen kapitalista pribatuaren eta Estatuaren jardura hutsaren bidez. «Hau bilakatu da arazoa: ekonomia eta enpresa desautonomizatzen ari dira berriro pertsonetatik eta gizarteetatik» (Fernández Steinko 2001, 23).

Langabeziak edo bazterketa sozialak jarritako erronkei aurre egiteko, erantzun berriak, baliagarriak eta eraginkorrak behar direnez, ekonomia sozialaren esparrura (hirugarren sektore honetara) zuzendu dira begiak.

1.2.2. Lan-antolakuntza berria: malgutasuna eta partaidetza

Ekonomia sozialari buruzko jakingura, eta ez neurri txikiagoan, beste arrazoi bategatik ere piztu da. Hazkunde ereduaren krisiarekin batera iraultza teknologikoa gertatu da. Teknologia berriek prozesu ekonomiko eta sozialetan eragin izugarria izan dute ekoizteko, banatzeko, antolatzeke eta kudeatzeko formak aldatuz, merkatuak aldatuz —lan-merkatua, esate baterako—, kapital-mugimenduak lehen mailan jarritz, tertziarizazio produktiboaren prozesua azkartuz, eta ekonomien mundializazioa sakonduz. Horri guztiari sektore publikoaren funtzioen orientazio berria eta aldaketa soziologikoak eransten badizkiogu, merkatu-ekonomiak eszenatoki berri batean jarri direla ohartuko gara.

Pentsamendu ekonomiko ortodoxoak era hertsian aztertzen ditu aldakuntza teknologikoaren eta ekonomiaren arteko harremanak. Ikuspegi horretatik, indar produktiboetan gerta daitekeen edozein hobekuntza, automatikoki, kapitalismoa indartzera dator. Pentsaera hori ez da gai enpresa eta gizarte-egituretan aurrerakuntza teknologikoak sor ditzakeen kontraesanak era egokian aztertzeke (Guerrero 2000). Ekonomia sozialaren ikuspegitik aztertuz gero, ordea, zenbait aukera zabal-tzen dira demokratizazio parte-hartzailearen bidean.

Gaur egungo ekonomiek ekoizteko era malguak behar dituzte; alde batetik, teknologiak hori posible egiten duelako, eta, bestetik, eskariak hala exijitzen duelako. Beraz, herrialde garatuetan lehengo produkzio-kateak albo batera utzi dira, eta, horrekin batera, lana antolatzeke era zurrinak desagertu egin dira.

Ekoizte-eredu berriek lan-antolakuntza arina eta malgua eskatzen dute; ekoizpenak behar dituen baldintzetara azkar egokitzeko gaitasuna erakutsi behar da. Lanen deszentralizazioa, lanpostuen malgutasuna, gaitasunen balio-aniztasuna, kalitatearekiko konpromisoa, lantaldeen autonomia, erantzukizuna, etab. dira lan-antolakuntza berriak eskatzen dituen ezaugarriak (Mendizabal 1999). Orain, langilearen parte-hartzea da beharrezkoa; lanean langilearen inplikazioa, motibazioa eta sormena. Alor hori bereziki ekonomia sozialeko enpresek landu dute hasieratik, aipatutako ezaugarri horiek euren jardunean funtsezko elementuak baitira.

1.2.3. Zientzia ekonomiko ortodoxoaren ikuspegia

Zientzia ekonomikoaren hastapenetan, egoismoaren hipotesia *homo economicus*aren, ez beste inoren, ezaugarritzat hartzen zen. Baina teoria neoliberalak (Aukera Publikoaren Eskola, Oliver Williamson-en Instituzionalismo Berria eta Gary Becker-en teorizazioak, batez ere) indarra hartuz joan diren neurrian, hipotesi hori pertsonen jarduera-esparru gehienetara pasatu da: politikara (politikaren mun-

dua gizabanako-politikari kalkulatuaz osaturik egongo litzateke), administrazioa (administrazioaren mundua gizabanako-funtzionario kalkulatuaz beteta egongo litzateke), enpresara (langileei *free rider* portaera —alferkeria— suposatzen zaie eta transakzio kostuak minimizatzeak antolakuntza hierarkikoa eskatuko luke), eta baita bizitza sozialera eta familiara ere (edozein erabaki —baita maitasunari loturikoak ere— ekintzaren kostuak/irabaziak kalkulatu ondoren hartuko litzateke).

Gainera, teoria neoliberalak betiko portaera egoista hori erradikalizatu egin dute. Lehengo *homo economicus*arekin alderatuz (egoista “normaltzat” joz hura), gizabanako berria (neoliberal) *erabat* egoista, ziniko eta kalkulatuaz da eta bere interesa lortzeko, soil-soilik, gidatzen du bere portaera (Monnier eta Thiry 1997, 16).

Homo economicus tradizionalak eredu baten kontsiderazioa zuen (hots, errealitate konplexu baten analisi ulergarria egin ahal izateko erabilitako errepresentazio sinplifikatua), baina *homo economicus* berriaren ezaugarriak gizabanakoaren izaera antropologikoa loturik agertzen dira. Horrela, *homo economicus* horretan oinarritutako paradigma, inplizituki, eredu posible bakartzat aurkezten da.

Beraz, teoria neoliberalaren ikuspuntutik, eta gizabanakoaren arrazionalitateari gagozkiolarik, portaera erabat egoista eta zinikoa izango litzateke aintzakotzat har daitekeen bakarra, portatzeko beste edozein era ez baita anakronismo baten aztarna, gaitasunik ezaren sintoma... edo engainua besterik (Monnier eta Thiry 1997). Politikariek Estatuko instituzioen defentsan jardutea, euren hauteskunde interesen gaintetik, ez da sartzen teoria neoliberalen markoan; ez eta funtzionarioen lehentasuna euren lanean zerbitzu publikoa eskaintzea izatea ere; askoz gutxiago demokrazia ekonomikoa eta elkartasuna izatea goiburutzat kooperatibistek, edo altruismoak gidatzea bolondresen lana. Kontzepzio eta jarduera horiek ez dute lekurik neoliberalismoak duen gizabanakoaren ikuspegi utilitarista-monetaristan.

1.2.4. Interes orokorra berrikusi beharra

Hala eta guztiz ere, kontuan hartu beharreko aspektu batzuk dituzte teoria neoliberalak. Paradoxikoki, ikuspegi neoliberalak, gizabanakoaren portaera egoistan oinarritua egon arren, eraso handia —eta ez arrazoirik gabea— egin dio interes orokorrarekin erlazonaturiko guztiari.

Onartu beharra dago, teorizazio hauek agertu arte, interes orokorra aipatu izan denetan ez dela inoiz kontuan hartu gizabanakoaren portaerak berak ere kutsa dezakeela interes orokor hori. Neoliberalak argi utzi dute, maila honetan ere, kudeaketa publikoan zein ekonomia sozialeko enpresa edo erakundeetan, hutsegiteak eta akatsak guztiz posibleak direla. Arrazoiketa neoliberalaren zati honek hauxe planteatzen du: arazo ekonomiko-sozialen soluzioa ez dela pentsatzen zen bezain sinplea.

Dena dela, Estatuak eta ekonomia sozialeko erakundeek interes orokorraren monopoliorik ez izateak, ez du esan nahi merkatuko indarrek hartzen dutela esklusiban monopolio hori. Alde bakarreko ikuspegi erosoak utzi eta konplexutasuna aintzakotzat hartzea eskatzen du horrek.

Baina ikuspegi neoliberalaren oinarri antropologikoa, hau da, portaera arrazionala egoismo hutsarekin identifikatzen duena erabat, ezin daiteke onartu, eta kritika gogorra merezi du. Alde batetik, baieztapen horrek ez duelako oinarri enpirikorik, eta beste alde batetik, kultura ekonomiko, publiko edo soziala suntsitzera datorelako.

Ekonomia publikoa oso presente dago munduko herrialde guztietan, erregimen politikoa edozein izanda ere. Berak bakarrik Barne Produktu Gordinaren %25-%50 errepresentatzen du, herrialdeen arabera, eta horri, enpresa publikoak gehitu behar zaizkio; eta pribatizatzeko-prozesuek azken urteotan bultzada handia ezagutu duten arren, oraindik ere sektore publikoko enpresek errealitate ekonomiko inportantea osatzen dute. Izan ere, nekazaritza alde batera utzita, Europako Batasuneko jarduerak ekonomikoaren %10a baino gehiago suposatzen dute. Horrez gain, kontuan izan behar da ugari direla sektore publikoaren gutxiengo partizipazioa duten enpresak.

Bestalde, tradizio frantsesari jarraituz, *ekonomia soziala* izenaz ezagutzen den sektoreak —kooperatibak, mutualitateak eta elkarteak biltzen dituenak— herrialde askotan garrantzizko pisua izatea lortu du. Europako Batasuneko hamabost herrialdetan zazpi milioi inguru pertsonari eman bide dio; horrek esan nahi du alokairupeko enpleguaren %5,5 inguru errepresentatzen duela.

1.2.5. Ikuspegi konplexuago baten bila

Ikuspegi neoliberalarentzat, merkatuen zenbait hutsegite (monopolio naturala, kanpo-ondorioak, ondasun publikoak...) alde batera utziz gero, merkatu libreetan dagoen lehiak segurtatzen du, berak bakarrik, berez, eta alde guztietan, interes indibidualen eta interes orokorraren arteko lotura hertsia eta berehalakoa. Botere desberdintasunik eta instituziorik gabeko mundu honetan espazio sozioekonomikoa eremu garden eta neutro moduan agertzen da, momentu guztietan autorregulatzeko gaitasuna duen merkatu baten gidaritzapean.

Baina errealitate sozioekonomiko konkretuak begiratzuz gero, mundu askoz konplexuagoa agertzen zaigu. Eta mundu horretan gatazkak, botereak eta balioek berebiziko lekua hartzen dute. Merkatuek egitura instituzional konkretua dute atzean, batzuen mesedetan eta beste batzuen kaltetan. Eta komunitate bateko jendearentzat interes orokorra kontuan izateak leku inportantea hartzen du, nahiz eta ez oso zehaztua².

2. Mozkin pribatuak maximizatzearen helburuak ondo zehaztutako portaera ekonomikoetara eramaten gaitu; interes orokorra bilatzeak, ordea, zehaztu gabeko portaeretara garamatza sarri askotan.

Pentsamendu neoliberalak errealitatearen alde bakar bat (gizabanako berekoi-kalkulatzailer hutsa) kontuan izanik egiten ditu bere teorizazioak, baina zientzia kognitiboen azken aurkikuntzen arabera, pertsonengan etengabe daude presente interesa eta moralak. Gizabanakoak badaki baliabideak erabiltzen bere helburuak lortzeko, baina bere jardueran emozioak eta balioak ere ageri dira. Politikariek, esate baterako, hauteskunde-interesak dituzte, ezin daiteke uka, baina euren portaera aztertuz, beste betebeharrak batzuen ardura ere hartzen dutela ageri da.

Premisa ultraliberalek kontrakoa dioten arren, badirudi gizabanakoek ez dituztela gizartearekiko harremanak “ni-haiek” erako aurkako dialektika sinplistan oinarritzen. Gizabanakoaren arrazionaltasunean, komunitatearen —edo zenbait komunitateren— kide sentitzea ere sartzen da; komunitate horiekin balioak eta helburu kolektiboak konpartitzen ditu, eta solidario sentitzen da. Gizartean “solidaritate-perimetroak” aurkitzen dira (Monnier eta Thiry 1997, 21). Perimetro edo eraztun horiek familialatik hasi eta nazioarte mailaraino doaz, enpresatik, sindikatutik, elkartetik, etab.

Gizabanakoaren jardueran motibazio posible eta konplexu ugariak parte har dezaketela kontsideratzeak ez du esan nahi eredu utilitarista alde batera utzi eta gizabanakoaren irudi moralizatzailearen bat onartu behar denik. Alde bakarreko ereduak ezin dute azaldu gizabanakoaren portaeraren konplexutasuna. Egin beharrekoa beste hau izango litzateke: gizabanakoaren portaerak agertzen duen dibertsitatea zientifikoki aztertu, eta ahalik eta ondorio gehien atera, ekonomia eta gizartea era egokienean antolatu ahal izateko.

1.2.6. Egitura instituzionalaren garrantzia

Langabeziaren arazoak eta ongizate-estatutik ongizate-gizartera igarotzeak aparteko garrantzia hartu dute merkatu-ekonomia modernoetan, ezin izan baitaie konponbide egokia eman merkatuaren indar autorregulatzailea erabiliz, ez eta ekonomia mistoko politika makroekonomiko tradizionalari jarraituz ere.

Giza beharrizanak ugariak izan arren, eta jarduera produktiboa beharrian horiek asetzera zuzendua egon arren, merkatu-ekonomietan lan-eskaintzaren zati batek ez du jarduera produktiboan aritzeko aukerarik aurkitzen. Esan daiteke nahigabeko desenplegua dela, askogatik, kostu handiena suposatzen duen merkatu-hutsegitea.

Hutsegite horren aurrean, azalpen makroekonomikoek adierazitako kausak (eskariaren gutxiegi maila, alokairu errealek behera egiteko aurkezten duten zurruntasuna, lan-merkatuaren malgutasunik eza) ez dira nahikoa gure gizarteetan metatzen den desenplegu guztia azaltzeko. Horrek, azalpenak beste nonbait aurkitzera eramaten gaitu, eta, badirudi, gure ekonomietako arazo larrienen (langabezia euren artean) azpian dauden faktore inportanteenak ez direla makroekonomikoak,

gizartearen egitura instituzionalari loturikoak baizik³. Horrek, zientzia ekonomikoari gizarte osoaren onerako izango diren aldaketa instituzionalak proposatzea eskatzen dio.

1.3. PARADIGMA BERRIA

1.3.1. *Inperialismo ekonomikoa*

Praktika zientifiko normala izan da, beti, zientzia batek beste zientzia bateko edo batzuetako metaforak onartzea eta erabiltzea⁴, baina ez diziplina bateko zientzialariak beste diziplina batzuetako eremuetara sartzea euren metodoarekin, orain ekonomialariak egiten ari diren bezala. *Inperialismo ekonomiko* izenez ezagutzen den fenomeno hori dela eta, gauza bitxia gertatzen ari da ekonomiaren munduan gaur egun. Paradigma ekonomiko neoklasikoa beste esparru batzuk hartuz doa, hots, bere metodoa (aukera arrazionalen metodoa, funtsean) beste zientzia batzuen eremuetara aplikatuz doa, bere barnean izugarritzko arazoak dituenen. Oso harro agertzen da beste diziplina sozial batzuen aurrean, bere metodoaren nagusitasuna aldarrikatuz, bere baitan adostasunik ez dagoenean.

1.3.2. *Kritikak paradigma neoklasikoari*

Gaur egun zientzia ekonomikoan nagusia edo ofiziala den paradigmatik ez ditu aintzakotzat hartzen ekonomia sozialaren praktikak planteatzen dituen balioak, portaerak eta gizarte-aldaketa nahiak. Baina, horrez gain, paradigma horrek huts egiten du errealitate ekonomikoen hainbat eta hainbat aspektu interesgarri eta larri azaltzerakoan.

Eredu neoklasikoetan, gizabanakoaren portaera da gizarteko analisi ekonomikoaren ardatza, gizabanakoen integrazio kuantitatibo soila besterik ez baita gizartea eredu horientzat. Modu horretan, gizabanakoa irabazi pertsonalaren bila ari denean, bere irizpide pertsonal hutsa kontuan izanik, gizarte osoaren ongizaterako ekarpena egiten ari da. Paradigma horren ikuspuntutik, egoismo pertsonala ondasun soziala bilakatzen da, eta mozkin pribatua lortzea da gizartearen benetako motorea (Palazuelos 2000).

Horregatik, paradigma neoklasikoaren ibilbidea eta emaitzak ikusita, gero eta ahots gehiago entzuten da, eta esparru ezberdinetatik, paradigma berri baten beharrianaz mintzatzen. Autore ugari adierazi dute euren desadostasuna paradigma

3. Tesi hori izan da historian zehar eskola instituzionalistaren ardatza.

4. Peirce-ren ustez, beste diziplina batzuetako metaforak erabiltzea indar inportanteenatarikoa da zientzia bat garatzeko. Darwin-ek biologia Malthus-en eta ekonomialarien metodoetara egokitu zuen, Wundt-ek fisiologiaren metodoak egokitu zituen psikologiara, Cournot-ek desbiazioen kalkulua egokitu zuen ekonomia politikora, etab.

ortodoxoarekin, eta, horrekin batera, ekonomia beste modu batera aztertzeke nahia⁵.

Baina paradigma berri bat burutzea ez da goizetik gauera egiten den lana. Hodgson-ek (1995, 12) dioen bezala, paradigma neoklasikoa, gaur ezagutzen dugun forman, laurogeita hamar urtez —1860tik 1950 arte— hamabi bat aparteko bururen ahaleginen ondorioz sortu da. Kontuan hartu behar da, beraz, zientzia ekonomiko berri bat eraikitzea izugarritzeko lana dela, eta, urte luzez, jende askoren parte-hartzea eta era guztietako ekarpenak direla beharrezko.

1.3.3. Paradigma instituzionalista

Paradigma heterodoxoen artean badago bat (Instituzionalismoa) ekonomia sozialaren ildo beretik doana. Instituzionalismoaren planteamenduak bat datoz ekonomia sozialaren balio, printzipio eta praktikekin: demokraziaren, elkartasunaren eta berdintasuneko gizarte baten aldeko apustua eraldaketa sozialen (aldaketa instituzionalen) bidez. Instituzionalismoak, ekonomia sozialak egiten duen eran, gizabanakoak izaki arrazional, zuhur eta kritikotzat hartzen ditu; beraz, egoerak aldatzeko gai direla kontsideratzen du.

Instituzionalismoa XX. mendearen hasieran Ipar Amerikan sortzen den pentsamendu ekonomiko soziala da, Veblen, Commons eta Mitchell-en lanen ondorioz. Gerorantz korrante horren ordezkari esanguratsuenak Ayres, Myrdal eta Galbraith izan dira, eta azken hamarkadetan ikuspegi instituzionalista-eboluzionistan oinarrituriko ekarpenak gero eta gehiago dira, hala Estatu Batuetan nola Europan. Paradigma hori marxismoaren eta keynesianismoaren ikuspegi ugarirekin bat dator, baina ez du onartzen marxismoak aldarrikatzen duen determinismoa; bestalde, keynesianismoak baino ikuspegi integralagoa du gizartearen antolakuntzarako.

Waller-ek (1988, 667) honela definitzen du instituzionalismoa: «sistema ekonomiko baten funtzionamenduaren deskribapen zehatza egiten duen analisi kritikoa; sistema hori egitura eta praktika demokratikoago eta parte-hartzaileagoetara bultzatzea da bere helburua». Ikusten denez, definizio horrek ekonomia sozialaren kezka erabat biltzen ditu.

Instituzionalismoaren ezaugarri funtsezkoenak hauek izango liriateke: (i) Paradigma neoklasikoarekin mantentzen duen antagonismoa; hau da, erabateko desadostasuna paradigma neoklasikoak erabiltzen dituen hipotesiekin, burututako ikerketa anitzen hutsaltasunarekin eta paradigma horretatik eratortzen diren inplikazio

5. Bide horretan dira “Kansas City-ko Proposamena” moduko aldarrikapenak. Proposamen hori 2001eko ekainean Missouri-ko Unibertsitatean bildu ziren hogeita bi herrialdetako ikertzaile, irakasle eta ikasleek eman zuten argitara. Dokumentu horretan agertzen diren kezka azken urteotan munduko beste leku batzuetan adierazitakoan segida dira, hala nola, Erresuma Batuan (“Cambridgeko Mugimendua”), Frantzia (“Mugimendu Ekonomiko Postautista”) eta beste herrialde batzuetan.

politikoekin. (ii) Parametro neoliberalen bidez eraturako *statu quo*ari oposizioa. (iii) Sustrai intelektualak pragmatismoan ditu (Peirce, James eta John Dewey). Hirurogeiko hamarkadatik aurrera korronte hori Estatu Batuetan berrindartzen hasi zenean, ez zuen marxismora jo, ez eta Europan izandako bertsioetara ere; horren orde, euren marko intelektuala Estatu Batuetako filosofia pragmatikoan eta Veblen-en ekarpenetan oinarritu zuten. (iv) Eraldaketa ekonomiko eta sozial aurrera-koien aldeko bokazio eta konpromisoa.

Instituzionalismoak paradigma berri eta alternatibo bat sortzeko egin ditza-keen ekarpenak hainbat esparrutara hedatzen dira. Ekonomia sozialarekin lotura gehien agertzen duten hiru alderditara mugatuko gara lan honetan: (i) Ekonomia zientzia moral bezala definitzea. (ii) Ekonomia arrazionalitate instituzionalaren inguruan eraikitzea. (iii) Ekonomiaren izaera politikoa lehen mailan jartzea.

1.3.4. Ekonomia, zientzia morala

Veblen-ek balio aurrerakoi eta balio atzerakoien artean ezarritako bereizketan datza eraikin instituzionalista osoaren abiapuntua⁶. Balio aurrerakoiek arazo ekonomikoen soluzioa gizartearen gehiengoaren mesedetan gerta dadin laguntzen duten bitartean, balio atzerakoien helburua talde batzuen boterea, estatusa eta pribilegioak mantentzea da.

Bereizketa hori Veblenek era deskriptiboan planteatu bazuen ere, denbora-ekin, izaera normatiboa hartuz joan da⁷ eta instituzionalismoak aldarrikatutako edozein balio-irizpideren oinarri bihurtu da. Horrela, instituzionalismoak, zientzia ekonomikoari, inoiz galdu behar ez zuen izaera morala berrezarri dio. Errealitate ekonomiko-sozialaren azterketa aurretiaz zehaztutako balioetan oinarrituta egiten du, hau da, giza idealen markoaren barruan. Zientzia sozial desinteresaturik ezin daiteke izan. Balioek gidatzen dute azterketa, galderak plantearaziz eta arrazonamendua bideratuz (Myrdal 1980).

Instituzionalismoarentzat, balio-judizioak ezinbestekoak dira ikerkuntza sozialean, eta argi eta garbi zehaztuta agertu behar dute. Horrez gain, azterketa kritikoa- ren galbahetik pasa behar dute; balio-judizioak ezin dira era arbitrarioan aukeratu; aitzitik, euren koherentzia, esangura, iraunkortasuna, onarpen sozial maila eta bideragarritasuna zehaztu eta frogatu behar dira (Myrdal 1980).

Uste oso hedatua da zientzia ekonomikoan proposizio normatiboen azterketa arrazoien bidez egitea ezinezkoa dela. Neoklasikoen ustez, proposizio zientifi-koak soilik aztertu daitezke arrazoia erabiliz, baina inoiz ez helburuak edo balioak,

6. Balioen arteko dikotomia hori, autore instituzionalistetan, era honetara ere agertzen da: balio instrumentalak/balio ez instrumentalak edo balio teknologikoak/balio zeremonialak. Testuko erabile- ra Paul D. Bush-ena da.

7. Batez ere Marc Tool-en lanen ondorioz.

horiei izaera arbitrarioa suposatzen baitzaie. Ezin daiteke ezer arrazionala esan balioei buruz, arrazoiaren eremutik at geratzen baitira. Baina paradigma neoklasikotik kanpo adierazten dena beste hau da: balioei buruzko eztabaidak argudioetan oinarritzen dira, eta argudioak kritikatu eta ebaluatu egin daitezke euren sendotasun-maila kontuan izanik. Balioei buruz gauza asko esan daiteke arrazoiaren eremutik irten gabe (Ovejero 1994).

Ekonomiak gizarte osoaren zerbitzurako eraiki behar den zientzia soziala izan behar duela uste du instituzionalismoak; ondasun eta zerbitzuen fluxuan egon daitezkeen arazoak identifikatu behar ditu eta bide egokiak proposatu, fluxu hori gizarte osoaren mesedetan gerta dadin.

Ekonomiak alternatibak eskaini behar ditu planteatutako arazoak konpondu ahal izateko. Zientzia horrek jende errearen beharrezanaz aztertu behar ditu, eta ez merkatu abstraktuenak edo kapital handiarenak. Robbins-en ustez, zientzia ekonomikoaren eginbeharra baliabide urriak helburu alternatiboetara egokitzea bazen, instituzionalismoak aldatu egiten du ikerketaren ardatza: inportantea, orain, arazoak eta gatazkak identifikatzea da, eta horiei soluzioa eskaintzeko egitura instituzionalean aldaketak proposatzea.

Instituzionalismoarentzat merkatua ez da zerbait “naturala”, nahi eta nahi ez ona dena eta *per se* onartu behar dena. Merkatu-ekonomia merkatu ugazurik osaturik dago, eta bakoitzaren funtzionamendua aztertu behar da; merkatu horiek eraikuntza sozial konkretuak dira, eta botere-erlazio konkretuen isla; beraz, gizarteari eskaintzeko emaitzen arabera ebaluatu behar dira.

Ekonomialari neoklasikoen iritziz, gure garaiko instituzio garrantzitsuena merkatua da, baina instituzionalisten ustez, benetako jokoak ez da merkatuan gertatzen. Indar errealek merkatuen atzean daude, nolako elkartrukeak egin ahal izango diren eta noren mesedetan burutuko diren erabakiz. Instituzionalismoaren ikuspuntutik, merkatuek aurretiaz erabakitako joko-arauak islatzen dituzte, besterik ez.

1.3.5. Arrazionalitate instituzionala

*Homo economicus*aren kontzeptiotik eratorritako merkatuko arrazionaltasuna albo batera utziz, instituzionalismoak arrazionalitate instituzionalaren inguruan eraikitzen du bere diskurtsoa. Gizabanakoaren portaera ezin daiteke ulertu testuinguru instituzionala kontuan hartu gabe: testuinguru horrek ezartzen dizkio mugak eta eskaintzen dizkio ahalbideak. Horrek hau ere esan nahi du: alde batetik, gizarteko egitura instituzionalak (legeak, arauak, populazioaren jarrerak, ohiturak, etab.) izan behar duela analisi ekonomikoaren ardatza, eta ez sistemaren “inperfekzioetat” hartzen den zerbait; bestetik, edozein arazoren (langabezia, desberdintasunak, lan-kontratu bidegabeak, prezio-igoerak, ezegonkortasuna...) sustraiak gizarteko egitura instituzionalean aurkitu behar direla; eta azkenik, errentak, boterea eta estatusa ere instituzioen bidez eskuratzen direla.

Instituzionalismoaren hurbilketa metodologikoa ez da oinarritzen *a priori* ezarritako ezein egiatan, ez eta ezein motatako determinismotan. Hurbilketa kausala da, hau da, gizarteko egitura instituzionalean gertatzen diren lotura kausalak aurkitzea da bere helburua. Eta hurbilketa horrek ez du izaera mekanizista, eboluzionista baizik.

1.3.6. Zientzia ekonomikoaren izaera politikoa

Instituzionalismoaren ikuspuntutik, zientzia ekonomikoak tresna izan behar du aldaketa instituzionalen bidez aldaketa sozial aurrerakoiak bultzatzeko. Aldaketa sozialerako funtsezko elementua, gizakiek euren esperientziari buruz era kritikoan pentsatzeko duten gaitasuna dela uste dute instituzionalistek. «Hau izan da *statu quoa* aldatzeko elementu oinarritzkoena historian zehar» (Tool 1986, 7).

Pentsamendu kritikoaren bidez herritarrak euren eskubideen alde saiatzen dira. Gizarteari buruzko kritika abstraktuak baino gehiago, eskubide konkretuen aldeko borrorak dira mugimendu instituzionalistaren oinarria (Dugger 1989). Zientzia ekonomikoak giza egoeraren hobekuntzarako ekarpenak egin nahi baditu, gizabanakoen eskubideak lehen mailan jarri behar ditu, eta horiei buruzko eztabaida irekia sustatu behar du: enplegu-eskubidea, diru-sarrera duin baterako eskubidea, etxebizitzarako eskubidea, kalitatezko ingurumenerako eskubidea, etab.

Ekonomiaren kontzepzio horrek aldaketa sozial aurrerakoiak eragingo dituzten politikak sustatzea suposatzen du, eta ez gutxi batzuen mesedetan *statu quoa* indartuko dutenak. Izan ere ezberdintasun sakonena, instituzionalisten eta neoklasiko-neoliberalen artean, ez da lehenengoen instituzio kontzeptua darabilteela analisitate moduan⁸, baizik eta antolakuntza sozioekonomikoari dagokionez, batzuek eta besteek duten ikuspegi ezberdina zientzia ekonomikoaren egitekoaz: gizartearen gehiengoaren alde izango diren aldaketa sozialak bultzatzea batzuentzat, eta *statu quoa* berrindartzea besteentzat.

Ikuspegi neoliberalak bizitza sozial osoa antolatzeko duen irizpide bakarra merkatu-irizpidea da. Baina instituzionalisten ustez, merkatuko arrazionaltasunak beti egon behar du arrazionalitate politiko demokratikoaren mende, hau da, gehien-
goak adierazitako borondate sozialaren mende.

Ekonomia sozialak egiten duen bezalaxe, instituzionalismoak ere lehen mailan jartzen du demokraziaren kontzeptua. Instituzionalismoak bere kausatzat hartu du lanean demokrazia ekonomikoa eta esparru politikoan demokrazia parte-hartzailea sustatzea (Dugger 1989). Demokrazia ez da ulertzen botere ekonomikoaren zerbitzuan dagoen elite politikoei egiten zaien botere-delegazio moduan, baizik eta pertsonen euren duintasuna eta boterea adierazteko duten bide bezala.

8. Ekonomia Instituzional Berriak ere (hipotesi neoklasikoetan oinarrituta) instituzioak erabiltzen ditu unitate-analisi bezala.

Dena den, aldaketa sozialak oztopatzen dituzten indarrak ez datoz soilik botere taldeek euren pribilegiozko posizioak mantentzeko eragindako presiotik, baizik eta baita jendeak oso barneratuta dituen pentsatzeko eta portatzeko joeretatik ere; joera horien bidez, jendea prest agertzen da mendekotasunean, hierarkian edo pribilegioetan oinarritutako harremanak onartzeko. Arrazoiz sartu dute kooperatibek hezkuntza euren printzipioen artean, bazkideak lankidetzaren, demokraziaren eta erantzukizunaren balioetan hezteko.

Estatuaren egitekoari buruz, instituzioanalistek onartzen dute gizarte kapitalistetan Estatuaren funtsezko zeregina kapitalaren metaketarako baldintza egokienak bermatzea dela; hala ere, aldaketa sozial aurrerakoia bultzatzeko askatasun nahikoa baduela uste dute. Beraz, Estatuak ez du espazio ekonomikotik at egon behar (neoliberalak dioten bezala) eta ez da soilik desberdintasunak leuntzeko erabili behar (keynesianismoarekin bezala); aitzitik, rol aktiboa jokatu behar du egitura instituzionala gehiengo sozialaren interesetara egokitzeko.

1.4. AZKEN GOGOETA

Ikerketa enpirikoek (Barea eta Monzón 1992) agerian jartzen dute kooperatibek aberastasuna sortzen dutela eta errenta eraginkortasunez banatzen dutela, enpresa tradizionalak baino enplegu egonkor gehiago sortzen dutela, langileen birziklapenez arduratzen direla, eta partaidetzaren eta erantzukizunaren kultura —ezinbestekoak gaur egun enpresa-jardunean— sortzen dutela.

Ekonomia sozialak mundu guztian du ezarpena; lorpen handiak izan ditu bere ibilbidean; zentzuzko bidea eskaintzen du gizartea antolatzeko; historia du, baita oraina ere, eta, batez ere, badu etorkizuna. Baina, hala ere, ekonomia mota hau ez da existitzen zientzia ekonomiko ortodoxoarentzat. Ikuspegi horren jarraitzaileen ustez, ekonomia sozialeko partaideen portaera ez da “egokia”, hau da, ez da izan beharko lukeen bezain berekoa eta kalkulatzailea. Ekonomia sozialeko enpresen helburu nagusia ez da ahalik eta irabazi gehien lortzea, baizik eta printzipio batzuei jarraituz jardutea, eta lana adostutako balio batzuen inguruan antolatzea. Ekonomia ofizialak ezin du hori bere baitan integratu.

Ekonomia ortodoxoak ez du ikusten merkatua gizarteak bere helburuak lortzeko erabiltzen duen bitarteko edo tresna moduan. Ikuspegi horren jarraitzaileen ustez, merkatua da gizartearen lorpen handiena, eta antolakuntza sozioekonomiko guztia horretara menderatu behar da. Ondorioz, zientzia ekonomikoa ez da gizarte osoaren mesederako bide egokienak proposatzen dituen zientzia, merkatua defendatzen duena baino. Pertsonen portaera, ez arlo ekonomikoan soilik, baizik eta baita bizitzako beste arloetan ere, kalkulu egoista hutsak bideratzen duela uste duen paradigma batek ezin du gizarte bidezkoago eta solidarioago baten aldeko proposamenik egin.

Zientzia ekonomikoak paradigma berri baten beharrezana du, errealitate ekonomikoa beste parametro batzuetatik abiatuta aztertu ahal izateko. Paradigma horrek aztergai izan behar ditu, eta ez aldagai exogenotzat hartu, aspektu historiko-instituzionalak (jarduera ekonomikoan hain garrantzi handia dutenak) eta horien ondorioz gizartean sortutako botere-erlazioak eta gatazkak.

Horrez gain, paradigma berriak gizartearen antolaketa ekonomiko-sozial alternatibo eta bidezkoago baterako irizpideak eskaini behar ditu. Alternatiba horrek gizabanakoaren eta gizartearen beharrezanetan erroturik egon beharko luke. Era demokratikoan adierazitako borondate kolektiboa izan beharko litzateke irizpide nagusia; inoiz ez, merkatu librearen izenean, gizarteko sektore boteretsuenen interes pribatua.

Interes pribatuan oinarritutako ekonomiaren funtzionamenduak arau argi eta zehatzak dituen arren, demokrazia parte-hartzailean, autogestioan eta elkartasunean oinarritutakoak, sarritan, ez du izango portaera egokiena zein den adieraziko dion irizpide zehatzik. Kontraesanak agertu ahala, irtenbideak aurkitu beharko ditu, eta, horrela, bidea eginez joan. Horretan datza bere zailtasuna, baina baita bere handitasuna ere.

Gizartea antolatzeko beste bide batzuk ere posible direla esatera datoz instituzionalismoa eta ekonomia soziala. Egoismoak, kapitalaren nagusigoak eta desberdintasun sozial iraingarriak ez dutela zertan izan behar antolakuntza sozialaren ardatzak. Ekonomia instituzionalistaren ikuspuntutik, ekonomia sozialaren praktikak frogatzen du jarduera ekonomikoa demokrazian, partaidetzan eta elkartasunean oinarri daitekeela.

BIBLIOGRAFIA

- Barea, J. eta Monzón, J. L. (1992): *Libro blanco de la economía social en España*, Ministerio de Trabajo y Seguridad Social, Madril.
- Dugger, William M. (1989): "Introduction" in W. M. Dugger (arg.): *Radical Institutionalism. Contemporary Voices*, Greenwood Press, Connecticut.
- Fernández Steinko, A. (2001): "Boceto para una espiral democratizadora de la economía, la sociedad, la empresa..." in A. Fernández Steinko eta D. Lacalle, *Sobre la democracia económica. La democracia económica en la sociedad*, I, El Viejo Topo-FIM, Madril.
- Guerrero, D. (2000): "Globalización, sociedad postindustrial y crecimiento económico a largo plazo" in J. Arriola eta D. Guerrero (arg.), *La nueva economía política de la globalización*, Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, Bilbo.
- Jeantet, T. (2000): *La economía social europea o la tentación de la democracia en todas las cosas*, CIRIEC, Valentzia.

- Mendizabal, A. (1999): “Organización del trabajo y economía social” in GEZKI, *Estudios sobre economía social y derecho cooperativo*, Marcial Pons, Madril.
- Monnier, L. eta Thiry, B. (1997): “Arquitectura y dinámica del interés general” in L. Monnier eta B. Thiry, *Cambios estructurales e interés general. ¿Hacia nuevos paradigmas para la economía pública, social y cooperativa?*, CIRIEC, Valentzia.
- Monzón Campos, J. L. (1997): “Las contribuciones de la economía social al interés general” in L. Monnier eta B. Thiry, *Cambios estructurales e interés general. ¿Hacia nuevos paradigmas para la economía pública, social y cooperativa?*, CIRIEC, Valentzia.
- Myrdal, G. (1980): *Contra la corriente. Ensayos críticos sobre economía*, Ariel, Bartzelona.
- Ovejero, F. (1994): *Mercado, ética y economía*, Icaria/Fuhem, Bartzelona.
- Palazuelos, E. (2000): *Contenido y método de la economía. El análisis de la economía mundial*, Akal, Madril.
- Tool, M. R. (1986): *Essays in Social Value Theory: A Neoinstitutionalist Contribution*, M. E. Sharpe, London.
- Waller, W. T. (1988): “Radical Institutionalism: Methodological Aspects of the Radical Tradition”, *Journal of Economic Issues* (iraila), 667-674.